

MAKE-UP MACHINE

1. BALIO-ESKAINTZA



Gure MakeUp machine proiektua sortu zenetik argi izan dugu zer eskaini nahi genuen kalitatea, erosotasuna, denbora aurrezte, irisgarritasuna eta berrikuntza. Gure egunerokoan askotan ikusten dugu makillajeak esfortzu handia eskatzen duela eta jende askok, nahiz eta gustuko estilo bat izan, ez duela jakiten nola lortu edo ez duela pazientziarik esperimentatzeko. Horregatik sortu dugu MakeUp machine, aurpegia eskaneatzen duen eta makillajea modu seguruan eta profesionalen aplikatzen duen gailu adimenduna. Sistemak erabiltzaileen gustuetara moldatzen da eta nahi den look-a automatikoki sortzen du, akatsik gabe. Honek guztiak ongizatea eta konfiantza ematen dizkio erabiltzaileari, emaitzarekin gustura sentitzen delako eta prozesua askoz errazagoa delako. Makina etxean edukitzeak gastu asko murrizten ditu, izan profesionalengana joatea, kosmetiko gehiegi erostea edo denbora galtzea. Gure asmoa da makina dendetan, zentro komertzialetan eta aireportuetan probatzeko aukera ematea, han bertan erosteko aukerarekin. Horregatik diogu MakeUp machine ez dela luxu bat, inbertsio adimentsu bat dela eta epe luzera abantailak oso nabarmenak direla. Gure negozio eredu machine + arreglos kontzeptuan oinarritzen da, hau da, produktua saltzeaz gain konponketak, eguneraketak eta ordeztuak eskaintzen ditugu, gailuaren bizi iraupena luzatzeko eta erabiltzaileen esperientzia hobetzeko. Produktuak funtzio gehiago eta kalitate handiagoa badu haren balioa eta iraunkortasuna ere handitzen dira. Gure proiektuaren oinarritzko mezua argia da pertsona guztiek dute eskubidea eder eta ziur sentitzeko, gaitasuna edo esperientzia alde batera utzita. Horregatik da bereziki erabilgarria mugikortasun mugatua edo ikusmen arazoak dituzten pertsonentzat, baita makillajea gustuko duten baina teknikak ez dakizkitenentzat ere. Teknologia irisgarritasuna handitu behar du eta MakeUp machine horretarako tresna egokia da.

MAKE-UP MACHINE

1. BALIO-ESKAINNTZA

Gainera MakeUp machine bat dator NBERen 2030 Agendarekin. GJH 3ri laguntzen dio ongizatea eta autoestimua indartzen dituelako, makillaje segurua eta profesionala eskuragarri jarritz. GJH 5i ere bai, edertasuna guztiontzat delako eta ez delako trebetasunen edo egoera ekonomikoaren arabera. GJH 9arekin lotuta dago berrikuntza teknologikoa eta diseinu adimentsua garatzen dituelako. GJH 10en bidez desberdintasunen murrizketa sustatzen du irisgarritasuna hobetzen duelako eta GJH 12rekin bat egiten du kosmetikoen kontsumoa optimizatzen duelako eta alferrikako xahutzea murriztuta.



MakeUp machine ez da publiko bakar bati zuzendutako produktua, oso erabilgarria da egunerokoan denbora aurreztu nahi duten pertsonentzat, estetika eta edertasun sektorean lan egiten duten profesionalentzat, mugikortasun edo ikusmen arazoak dituztenentzat, bidaiarientzat eta makillaje tekniketan esperientziarik ez dutenentzat. Gailuak guzti horiei erraztasuna, autonomia eta emaitza ona eskaintzen die.

Logoak gure produktuaren filosofia islatuko du. Aurpegiaren silueta simple batek eskaneaketa teknologikoa ordezkatzeko du, trazatu leunek profesionaltasuna eta leuntasuna iradokiko dute eta kolore garbi eta modernoak kalitatea eta berrikuntza transmitituko dute. Zirkulu edo kapsula formak makinaren egitura gogoraziko du eta babesa, harmonia eta erraztasuna adieraziko ditu. Azken finean logoak gure balio proposamena laburbiltzen du teknologia eta edertasuna modu naturalean uztartzen dituela eta erabiltzaileari esperientzia segurua, pertsonalizatua eta erraza eskaintzen diola.

